





Alonsotegi

Güeñes

Zalla

Balmaseda

02

Artilearen bidea

# 02

## **Artilearen bidea**

BI636 errepidetik doa, Bizkaiaren mugaldean amaitzeko, Balmasedan.

Txango honek merkataritzako ibilbide historiko bat ekartzen du gomutara, eskualdearen barruan funtsezkoa: mendeetan zehar Gaztela eta Burgostik artilez betetako zakuak Bilboko portura garraiatzeko baliatu zena, bertan ontziratu eta Europako ehungintza-gune industrialetara bidaltzeko.

San Anton elizaren inguruetako nasetan zeuden ontziralekuak, zubi zaharra pasaturik –zubiak XIX. mendearen amaieran eraitsiko zen–. Egungo Autonomia eta San Frantzisko kaleetatik sartzen zen Burgosko errege bide zaharra, Mena haranetik eta Enkarterritik igaro ondoren.

## *Aurreko orrialdean:*

*Balmasedako San Seberino, hiri zaharreko Erdi Aroko eliza. Ganga gotikoak nerbioen elkargune dira.*

## *Orrialde honetan:*

*Quadra. Saratsu ibarreko dorre gotor honek, garai eta hertsia, kanpoaldea defentsarako tresnez hornitua du.*

## *31. orrialdea:*

*Sodupe. Done Bikendi Martiria eliza. Bolibar kapitainarentzat egindako brontze urtuzko lauda. Kanpotik ekarritako lana, XVI. mendeko hirugarren laurdenekoa.*



### Kastrexanako zubia

Kastrexanako mendate txikia jaitsi eta gero, zubi monumental batek gurutzatzen du Kadagua ibaia: ia erdi-puntuko arku zabala da, harlanduaz egina, uraren gainetik hegan egin eta egungo errepeidea eta bide historikoa lotzen dituena.

Ibaiazen ezkerreko bazterretik zihoan bide historikoa, eta artilearen trafikoaren testuinguruan ulertu behar da zubia; izan ere, zubiari esker uxatu ahal izan zen Gaztelako mandazain eta faktoreek, ibaia Kastrexanako ibitik igarotzeko zaitasunak ikusirik, artilea Portugaletera bidaltzea erabakitzeak arriskua. Guztiz harrigarria gertatu bide zen obra hau xv. mendeko bizkaitar xumeentzat, hainbestearaino non naturaz gaindiko indarrei egotzi baitzieten, deabruari berari, alegia. Hori dela eta, zubiari buruzko elezaharren bat sortuko zen, beste toki batzuetan ere errepikatuko zena.

### Alonsotegi

Udal berria da. Antzinako historiari dagokionez, herrigune nagusia Irauregi-ekin eta San Andolin ermitarekin lotzen duen harrizko zubia da aipagarriena. Ermita estilo errenazentistakoa da, baita bere erretaula nagusia ere.

### Gueñes

Kadagua ibaia zubi moderno batetik igaro ondoren, Gueñes udalerrriaren lurretan sartzen gara –Salcedo haran historikoa osatzen duten bi udalerrietako bat–.

### La Quadra dorrea

Zaramillo auzoa igaro eta berehala, ibar lau bat eratzen du haranak; bertan, ezkerrean, La Quadra dorrea gailentzen da. Eraikin garai –18 bat m– eta hermetikoa da, harlangaitzekoa. Aspaldi hondaturik, dorrearen egoerak bere izatearen eta defentsarako gaitasunaren berri ematen du, Berant Erdi Aroko bando gerren testuinguruan. xv. mendean amaierako leinurik garrantzitsuenetako batena izan zen, Quadra Salcedokoena; Oinaztarren aldekoak

izanik, haranean estrategikoki kokatu nahi izan zuten mende horren amaieran. Era honetako elementu militarrek baino zerbait konplexuagoa da; harresi baxu batez inguratutik egon zen, sute batek hura suntsitu arte, 1981ean.

### Sodupeko botika

Sodupe auzo urbanizatuan, zubia igarotakoan, botikaren eraikina dago, oso nabaria bere bolumenen garbitasunagatik –lauki bertikalek ez dute ia ezer ere harrotzen–. Luzitu eta margotutik, ongi asko biltzen ditu «art déco» estiloaren proposamenak. 1933an dataturik dago, baina egilea ezezaguna da (agian Manuel Galíndez).

### La Puente gotor-dorrea

Ondoa harrizko eraikin sendo bat altxatzen da, goiko solairuan almena eta garitak dituena. Erdi Aroko gotor-dorrearen moldaeraztasunaren adibide ona da inondik ere. Kasu honetan xvii. mendean geroztik, 1681ean berregin baitzuten Hernado anaia harginek, Ameriketatik iritsitako diruaz. Fatxadetako baoak arautu zituzten, guztiak dintelduaz, baina mailakaturiko harburuen gainean hegada eginez ateratzen den adarke garaia eta angeluetako garita zilindrikoak errespetatu zituzten.

### Done Bikendi Martiria eliza

Apur bat aurrerago, errepeidearen ezkerrean. Pilare karratuek definituriko hiru habearte eta lau tartetan banatzen da eraikina; pilareen gainean, adreiluzko arku eta gangak oinarritzen dira. Ameriketara joandako eliztarrek bidalitako diruari esker ekin ahal izan zion Jose Gutiérrezzek, 1714an, eliza berrekitzeko obrari. Garai hartako barroko ornamentu-gabetuaren estiloan egin zen dena, dorrea barne –1726koa da–.

Horrez gain, altzari liturgikoak eta erretaula batzuk jartzeko dirua egon zen, baina halakoan artean aipagarriena brontze urtuzko **hilobi lauda** bat da, titularra etzanik erakusten duena: Pedro



Bolibar jauna, Karlos V eta Felipe II. aren zerbitzuan aritutako kapitaina, idazkun batek kontatzen duenez. Ez da lan arraroa Bizkaian, baina bai garrantzitsuenetakoa bere kalitateagatik. Seguru asko inportaturikoa izango da.

#### Gueñesko udaletxea

Udalerraren erdigunera sartu baino lehen, eskuinetara, lorategi baten erdian dagoen eraikin bakartu bat nabarmentzen da, jatorrian egoitza-txaleta izan zena: zuriz eta okre margoturik, oin nagusira igotzeko harmailadiak ditu. Urrutia txaleta izandakoa da; kanpotik estilo eklektikokoa da, eta barrutik molde hispaniarreko giro neorrenazentistez horniturik dago.

Emiliano Pagazaurtunduk eraiki zuen, 1910ean, Leandro Urrutia indianoarentzat, eta udalaren egoitza izateko birgaitu zen 1974an. Arkitektura indianoaren adibide ezin hobea da. Eskualde honetan ohikoak izan ziren molde horretako etxeak, garai bateko kolonietan aberasturiko burgesen artean.



#### Andra Maria eliza

Auzoaren erdian dago, hainbat bide gurutzatzen diren lekuan. Bolumen etzana eskaintzen du plazatik, eta erdian «Errege-erregina Katolikoak» estiloko portale aberats bat biltzen duen pantaila bat nabarmentzen da: pilaretxo kiribilak, lauburu tinpanoa, eta argi-zulo itsuen eremua. Bizkaian estilo honetan dauden guztietatik, Gueñeskoa onen eta ezagunenetakoa da.

1505ean molde gotikoan hasitako eraikin batean ari ziren eliza egiten Olabe anaia hargin bizkaitarrak, 1515ean. Baina portalea dagoen tartea erori ondoren, aukera berritzaileago bat hartu zuen Juan de Rasines maisuak 1541ean, zutabedun sistema errenazentista bat, alegia.

Burualdean atxikitako eraikinak sakristia dauka behean, eta erretoretxea goian; eraikin barrokoa da, Markos Gancedok 1742an marraztua.

**Erretaula nagusia:** egur polikromatuzko



### 32. orrialdea, goian:

*Gueñes. Udal jauregia. Urrutia Jauregia (1910), oraingo udaletxea, amerikanoen eraikinen erakusgarria.*

### 32. orrialdea, behean:

*Gueñes. Santa Mariako portadak Errege Katolikoak estilokoak, oihal ezagun bat irudikatzen du, erliebeak harrian trebeki landuak.*

### Orrialde honetan:

*Balmaseda. San Seberino eliza. Kristo erretaula tailla bizi eta adierazkorreko multzoa da; Beaugrant flandestar eskultoreek XVI. mendean egina.*



egitura da, inguru arkitektonikora egokitua. Mazoneria klasizismoaren zordun da, neurri handi batean, eskultura exentu eta erliebeen ikonografia aberatsa erromanismoaren zordun den bezala.

Juan Palacio Arredondo eskultoreak egin zituen taillak (1631), eta Juan de Sopena eta Bartolomé Martínez muntatzaileek estruktura (1632). Polikromia, berriz, Emeterio del Castillok egin zuen, 1679an.

### Zalla

Herrigunean –Mimetiz–gutziz urbano eta modernoa da giroa, baina plaza nagusiaren inguruan –musika-kioskoa dauka– bada antzinako jauregiren bat edo beste.

### Done Mikel Goiaingerua eliza

xx. mendean errotik birmoldatu zen; geroztik gutxi gelditzen da lehen historiari, baina dorrea azpimarra daiteke: oinaldean kokaturik dago, eta, besteak beste, Antonio Martínezek eta Antonio de Vegak egin zuten, 1735ean.

**Done Mikel Goiaingeruaren** egurrezko tailla eder bat dago: gerlariz jantzirik ageri da, Diego de Siloéren molde gaztelauan. Obra errenazentista da, Burgosko eskultorearekin lot daitekeena.

### Zariketeko Done Petri ermita

Errepidearen eskuinaldean dago, eta xvi. mendekoa da. Bertan egindako arao errotuek eman diote ospea –iturri zaharrek hala egiten zela diote–.

### Terrerros dorrea

Kadaguaren eskuineko ibar lauan dago, dorrearen jaraunsleek mendez mende landutako lurrian; denboraz, baserri bat erantsiko zioten, eta dorrea osagarri hutsa bilakatuko zen, lastategi eta korta.

Jatorrian Erdi Aroko gotor-dorre garrantzitsua izan zen: defentsarako gaitasuna zuen eta gune estrategiko batean kokaturik zegoen. Tipologia militarretik, defentsa bertikalerako eraturiko dorre begi edo matakana dira aipagarriena, harlangaitzezko horma-atalen erdian zintzilik.

### Balmaseda

Inguruko haran eta kontzejuen aldean, status juridiko ezberdina lortzen lehenengo «hiria» izan zen Bizkaian; 1199an sortu zen. Eskulangintza eta merkataritzarako joerak hasieratik bertatik lotzen du hiria Gaztelaren eta Bizkaiko Golkoaren arteko salgai trafikoarekin. Harrezkero, eskulangintzako ogibideek arrakasta handia izan dute Balmasedan. Hiria ez zen «ex novo» fundatu; aitzitik, Castro Urdialesera zihoan galtzada erromatar baten ondoan lehendik izandako herri bat finkatu zen fundazioarekin.

### Hirigintza

Jatorrian bide hiria izanik, hasieran kale bakarra izango zuen, ibai ondokoa (Kale Zaharra edo Martin Mendia kalea). Gerora, parareloan ugarituko ziren bideak, ibaiaren ezkerrean: Erdiko kalea –edo Pio Bermejillo kalea–, eta Correría, geroztik kale nagusia izango zena, bertatik errege bidea igaro baitzen hainbat mendetan. Ekialdeko eta mendebaldeko foku-puntuetara ematen zuten; hiri egituraren barruan, aintzat hartzekoak dira, halaber, kale kantoi meharrik, bide nagusietako etxe atxikien ilarak lotzen baitzituzten.

### San Seberino eliza

Plaza nagusiaren buruan, tenplu gotiko zabala da, xv. mendearen erdialdekoa: hiru habearte, eta lau tarte eta burualde poligonalak ditu. Estalkia egiteko, gurutzegangak baliatu ziren, zutabe balek osaturiko pilareen gainean. Kanpoko itxura, erlaitz bihurgunetsuekin, ez dator bat estetikoki eraikinaren gainerako atalekin; izan ere, «fatxadak edertzeko» eskuhartze barroko baten ondorioa da –Frai Marcos de Santa Teresaren trazekin egin zen, 1729an–. Joaquín de Liermok eta Andrés de Monasteriok zizelkatu zituzten parte horretan dauden harrizko eskulturak, 1734an, eta Lázaro de La Incerak marraztu zuen kanpandorra, 1726an.

Sarrera nagusiaren aurrean, Juan Urrutiaren kapera errenazentista pribati-

bo garrantzitsua erantsi zitzaion nukleo gotikoari; Juan de Rasines hargin kantabriarrari eman zion marrazteko agindua, 1541ean. San Seberino elizan, burgostar hilobi-kapera poligonal bikaina egin zuen, gurutze ganga eta trazeriaitsuak dituena.

Kristo Santuaren erretaula maila berean dago, kalitateari dagokionez; Beaugrant anaiek egur polikromatuan egindako lana da –eskultoreak Brujastik Bilbora etorritakoak ziren, 1533an–. Erretaula honetako eskultura, bada, estetika errenazentista erregionalaren adierazgarri onenetakoa da.

Gainera, harrizko hilobi-eskultura batzuk daude eliza honetan, beren arkosolioetan jarrita; haietariko batzuk, burualdean, erliebe modernistekin berritu ziren.


Koruan Cavaillè-Coll organoa dago: estilo neogotikoko kaxa dauka, eta 1892an egin zen, Parisen.

#### Udaletxea

Plaza berean dago. Hiru solairuko fatxada etzana dauka, harlanduaz egindakoa eta bost arku dituena; bertatik bebarrura sartzen da –arkuen bidez loturiko zutabe prismatikoez eraturiko gunea da–. Arkuen gainean balkoiak daude, burdinazko karelez horniturik, eta goiko aldean leihoak. Jatorrian, eraikinaren alde hau ez zegoen altuera berean berdindurik; albo bietan dorre bana zegoen. Lan barroko aipagarri hau Marcos Viernak egin zuen (1736), eta goiko aldearen erreforma, berriz, Antonio Goikoetxea arkitekto akademikoak marraztu zuen. Atariak duen meskita itxura –xehetasunik ospetsuena– Jose Maria Murgak egindako erreforma baten ondorioa da (1919).

#### Horcasitas jauregia

Kale ilaretan lerrokaturik dago, era bi fatxada ditu (bakoitzak kale batera ematen du). Harlanduzko etxea da. Bi fatxadetarik, hegoaldekoa da interesgarriena: zutabe artean markoztaturiko



#### *Orrialde honetan:*

*Balmaseda. Erdi Aroko zubi zaharrak Kada-guako ur urdinak zeharkatzen ditu. Armarririk hiriaren bereizgarri bilakatu du zubia.*

#### *35. orrialdea:*

*Balmaseda. Udaletxeko ataripe zabalean zutabeek eta erdi-puntuko arkuek gangaileri eusten diete han-hemenka.*

sarrera dinteldua dauka; zutabeen gainean balkoi bat bermatzen da, baen inguruan moldurak dituena, gainerakoek bezala. Sarera dinteldu horretatik, bebarru arkupedun zentralera igarotzen da: bi solairukoa da, eta arku-sailez eraturik dago, eraikitako masa handia harrotzeko.

Lukas Horcasitas aduanetako funtzionarioak eman zien, 1686an, jauregi barroko hau eraikitzeko agindua Pedro del Pontón eta Andrés del Collado hargin kantabiarrei.

#### Zubi zaharra

Balmasedaren ikonoa da, Bizkaiko ondare elementurik ezagun eta zabalduenetakoa. Hiru arku ditu –erdi-koa besteak baino askoz handiagoa–, eta harlangaitzezko dorre garai bat, kanpoko oinarriaren gainean arku zorrotzeko igarobidea duena. Erdi Aroko zubi gotortuen araberakoa da.

Ez dakigu noizkoa den zehatz, baina oinarrietako batean dauden hargin markak ikusirik, hiria sortu zen garaikoa bide da, 1200. urtearen ingurukoa. Dorrea xv. mendean erantsitakoa da.

#### Santa Klara komentua

Mena haranera orientaturiko errebalean dago, eta orain dela hogeitatu urte itxi zen. Elizak, kapilauaren etxeak eta lekaimen egoitzak osaturiko multzoa da, eta azken hau ostatu bilakatu da.

Horietatik, barroko soileko lekaimen komentuen prototipotzat har daiteke eliza: gurutze formakoa da; gurutzaduraren gorputzaren erdian kokaturiko kupula eta hiru tarte luzanga ditu, eta adreiluzko gangek estalirik dago. Egoitza parte patio baten inguruan antolatzen da, eta kapilauaren etxea egoitza-erakin noble samarra da, aurrekoarekin lerrotatua.

Erretaula nagusia. Taxu zuzeneko da, eta mahatsez hornituriko zutabe salomonikoek modulatu dituzte bere kaleak. Francisco Martínez de Arce erretaula-egileak eta Francisco de la

Edesa y Martín del Hoyo eskultoreek egin zuten 1688an (barroko hispaniar jatorraren ordezkariak).

Aipatzekoa da koruko aukiteria, oso osorik egurrezkoa (Francisco Martínez de Arce, 1687), bai eta **organoaren kaxa** ere, Logroñoeko Antonio de San Juan organo-egile rokokoarena (1777).

Panamara emigraturiko Juan de la Piedra balmasedarraren ahaleginei zor zaie Santa Klara multzoa. Lanak 1675ean amaitu ziren.

#### «La Encartada» txapel fabrika

Burgos probintziarekiko mugatik hurbil, errepidetik behera eta Kadagua ibaiaren ertzean, tradizio handiko ehungintza-zentro bat kontserbatzen da, orain dela hogeitatu urte arte jardunean egon zena. Bat baino gehiago dira multzoaren osagaiak: ekoizpen pabiloia, beharginen eta arduradunaren bizitegiak, eta, osagarri modura, eskola-kapera, errepidearen ondoan. Hortaz, industrializazio ingeleseko ohiko ekoizpen zentroen araberakoa da antolamendua. Kasu honetan, fabrikaren sorrera Markos Arena indianoarekin loturik dago, berak fundatu baitzuen, 1882an.

Agian instalazioak berak bezain interesgarria da beste kontu bat: txapelak egiteko jatorrizko makinek (ingelesak, gehienak) jardunean iraun zuten fabrika itxi arte. Horrengatik, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekimenagatik, museo bizia izatea dagokio «La Encartada» fabrikari, euskal industriako ehungintzaren interpretazio zentroa.

Kilometro bat aurrerago, zubi bat igarotakoan, Bizkaitik irteten da artilearen bide historikoa, Burgosko Mena haranean sartzeko.



#### Legenda

- Zein toki bisitatu ibilbide honetan
- Autopista
- Ibilaldiko errepidea
- Oinarritzko sareko errepidea
- Eskualdeko errepidea
- Tokiko errepidea

